



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

**JESUSEK
JAINKO AITA
AGERTZEN
DIGU**

GAIA 4

GURASOAK PARROKIAN

**Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**



1. Helburua

- Jesusek. Jainkoarekin duen hartu-emanean, Berau Aita bezala agertzen digula ikusi.

2. Helburu bereziak

- Lagun bakoitzak Jainkoaren berariazko irudia duela konturatu.
- Jesusek Jainko Aitarekin duen konfiantzazko, etxekoen arteko haru-eman ezagutu eta hartu-eman horretan Seme bezala agertzen dela eta geu be hartu-eman hori izatera gonbidatzen gaituela ikusi.




1. Ideia nagusiak

- Gure inguru sozio-kultural eta erlijiosoan, Jainkoa ulertzeko eta sentitzeko askotariko erak daude, baina guztiak ez datoz bat Jesukristorengan agertzen zaigun Jainkoarekin.
- Jesusek Jainkoa nor den agertzen digu bere biziaren eta hitzarekin: Jainko Aita-Abbaren aurpegia agertzera ematen digu.
- Jainkoarekin seme-alaben harremana izatera deitzen gaitu Jesusek.



Ezinbesteko lagungarriak

- Posterra Jainkoaren irudiarekin.
- Txartel / post-itak taldekide guztientzat.
- Bibliako txatalak inprimaturik banatzeko.
- III. eranskinaren kopiak.
- Arte-adierazpenerako lagungarriak: margoak, errotuladoreak, folioak,...



Saiorako gida

Laguntzailearentzat...

Saioa, lau unetan banatuko dugu:

- 1. unea: Agurra eta aurkezpena (5 minutu). 1. urratsa.
- 2. unea: Edukiaren garapena:
 - Jainkoaren irudiak (20 minutu). 2-3 urratsak.
 - Jesusengan agertzen zaigun Jainkoa (25 minutu). 4-5 urratsak.
- 3. unea: Barneratzea eta adierazpena (10 minutu). 6. urratsa.
- 4. unea: Familian bizitzeko (5 minutu). 7-8 urratsak.

LEHENENGO UNEA. AGURRA ETA AURKEZPENA



1. urratsa: Agurren ostean, ongi etorria adierazi guztiei eta giro egokia sortu saioari hasiera emateko. Laguntzaileak landuko den gaia aurkeztu eta sarrera egingo du: Nolakoa da Jainkoa, Jesusek erakutsi digunaren arabera.

Gizadiak betidanik egin du Jainkoari buruzko galdera, baieztatzeko eta Berarekin bat egiteko, jarrera erlijiosoan, edo ukatzeko. "Bada Jainkoa?", "Nolakoa da?", "Nola aurki dezakegu?", "Badu zerikusirik gurekin?",... Askotariko galderak, gizakien askotara erantzun dituztenak. Baina kristauoi, Jesusek Berak, Jainkoaren Semeak agertu digu Jainkoaren benetako aurpegia.



BIGARREN UNEA. EDUKIAREN GARAPENA

JAINKOAREN IRUDIAK



2. urratsa. Gizon eta emakumeek Jainkoarengan pentsatzen dutenean, honelako sentipenak izaten dituzte:



Beldurra
Segurtasuna
Urduritasuna
Maitasuna
Bakea
Kontsolamendua
Axolagabetasuna

Errespetua
Poza
Larritasuna
Lasaitasuna
Lotsa
Laguntasuna
Izua

Babesa
Beheraldia
Ilusioa
Tristura
Arrangura
Urruntasuna
Hurkotasuna

Elkarrietzketan jarduteko...

- Sentipen horietako zein agertzen da gehien zure ezagunen artean? Elkarrizketan jardungo dugu galdera honen inguruan, gaian sakondu aurretik.



3. urratsa. "Eta nik... zer pentsatzen dut honetaz?". "¿Cómo es Dios?" bideoa ikusiko dugu 2:58 minuturaino



**Bideoa ikusteko,
klik egin irudian**

Ondorengo galderok abiapuntutzat hartu eta elkarrizketan jardungo dugu:

- Bat dator Jainkoaz duzun irudi edo esperientzia ikusi berri dugun bideoan agertzen diren horietako baten batekin?
- Eta sentipenen zerrendarekin? Nola sentiarazten zaitu, zer eragiten du zuregan Jainkoaz hitz egiteak?
- Taldekide bakoitzak adieraz dezala erraz-erraz (hitz batez, irudi batez, esaldi batez... baliatuz) Jainkoaz duen irudia: "nor, nolakoa da Jainkoa niretzat?".

JESUSENGAN AGERTZEN ZAIGUN JAINKOA



4. urratsa. Biblian, Jainkoaz hitz egiten da. Itun Zaharrear, esate baterako, Hura nolakoa den azaltzen diguten irudiak jasotzen dira. Jesusek guzti horiek jaso eta hobetu egiten ditu, Jainkoaren benetako irudia ezagutzera emanez.

Bibliako txatal bana emango diegu partaideei (I. ERANSKINA). Bakoitzari egokitutako txatalean agertzen diren Jainkoaren ezaugarriak nabarmendu behar dituzte. Txarteletan idatziko dituzte ezaugarriak eta txartel horiek erdian jarrita egongo den Jainkoaren irudiaren inguruan itsatsiko ditugu (II. ERANSKINA).



5. urratsa. "Jesusen jarrera Jainkoaren aurrean". Jesusen bizitza eta mezua ezin dira ulertu Jainko Aita gabe. Jesusen eta Aita Jainkoaren arteko harreman honetan sakonduko dugu zer adierazten digun ikusteko.


III. ERANSKINEAN jasotzen den koadroa banatuko diegu partaideei bertan jarduera egiteko. Zenbakiez baliatuz, Ebanjelioko testua (ezkerreko zutabea), Jesusek horietako bakoitzean erakusten duen jarrerarekin (eskuineko zutabea) lotuko dugu.

Hori kontuan hartuta, elkarrizketan jardungo dugu ondorengo hauen inguruan:

- Guzti hau... zertan dator bat eta zertan ez Jainkoaz duzun irudiarekin?
- Zer gertatu zaizu deigarrien?
- Jesusek Jainko Aitarekin duen harreman hori ikusi eta bultzatzen nau zerbait egitera edo jarreraren bat hartzera?

Amaitzeko, "¿Cómo es Dios?" bideoa osorik ikusiko dugu. Gure bizitzan sartu diren Jainkoaren gezurrezko irudien gaineratik, Jesusek Jainkoaren benetako irudia agertzera eman digu: Jainkoa, Abba da, Aita eta mugagabeko maitasunaz maite gaitu.


Hirugarren unea. Barneratzea eta adierazpena

-  6. urratsa. Bileraren azken zatian, banaka hausnartuko dugu. Saio honetako "kontu" nagusia ez da buruarekin pentsatzen duguna, bihotzarekin sentitzen duguna baizik. Sinestedunontzat, Jainkoa ez da elkarrizketan jarduteko edo hausnartzeko kontu hutsa, esperimintatu egiten dugun Norbait baizik, Berarekin hartu-emana dugu eta Berarengan uste osoa dugu. Horregatik, saioaren azken zatian, guzti hau "bihotzera eramango dugu", eta taldekideei Jainkoarekiko harremana sentitzeko aukera emango diegu.




Barneratzeko giro egokia sortzen lagunduko digun musika jarrita dela, arte-adierazpenaren bidez (marrazki bakuna, idazki laburra, bakoitzak nahiago duena) Jainko Aitaren irudia agertzeko eskatuko diegu. Eta elkarrekin otoitz egingo dugu. Agertu diren Jainkoaren irudiei begira, Gure Aita errezatuko dugu.

Laugarren unea. Familian bizitzeko

-  7. urratsa. Azken zati hau familian egin. Etxean, nagusi eta txiki bilduta, Unai Quirosen "Dios está chiflado por ti" abestia ikusi eta entzun egingo dugu.



**Bideoa ikusteko,
klik egin irudian**

-  8. urratsa. Nagusiok mezu hau nabarmenduko dugu: Jainkoa gure Aita da eta "ikaragarri" maite gaitu. Ondoren, hainbat lagungarriez (folioak, margoak, errotuladoreak, guraizeak, plastilina...) baliatuz, Jainkoa nola sentitzen dugun, guretzat Jainkoa nor den, irudikatuko dugu. Bakoitzak bere lana amaitzen duenean, familian batera jarriko dugu eta eskerrak emango dizkiogu Aita Jainkoari maite gaituelako.

I. Eranskina: Bibliako txatalak

- Oseas 11, 1-15
- Salmoa 102, 11-12
- Isaias 49, 15
- Mateo 7, 11
- Mateo 6, 32
- Judit 9, 11
- Salmoa 145, 7-9
- Lukas 15, 10
- Lukas 15, 20
- Salmoa 102, 8-10
- 1 Joan 4, 8-9
- Erromatarrei 8, 15
- Mateo 6, 9

II. Eranskina: Jainkoaren irudia



III. Eranskina: Jesusen jarrera Jainkoaren aurrean

"Eskerrak zuri, Aita, entzun didazulako. 42 Nik badakit beti entzuten didazuna" (Joan 11, 41-42)	1		Jesusek bihotz-bihotzez maite du bere Aita Jainkoa
"Neurekin dut bidali nauena; ez nau, ez, bakarrik utzi, hark atsegin duena egiten baitut beti" (Joan 8, 29)	2		Jesusek semeari dagokion konfiantzazko hartu-emana du Aitarekin. Bere Semea da
"Ene Aita, ahal bada, urrun ezazu niregandik edari samin hau . Hala ere, egin bedi zuk nahi bezala, ez nik nahi bezala" (Mateo 26, 39)	3		Harreman estuan, etengabeko elkarrizketan bizi du Jainkoarekin
"Aita maite dut eta hark agindua zintzo betetzen dut" (Joan 14, 31)	4		Uste osoa du Aitarengan, inoiz ez duela bakarrik utziko dakielako
"Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia" (Lukas 23, 46)	5		Uste osoz jartzen da bere esku onetan
"Ez dut neure ahotz hitz egiten, Aitak irakatsi zidana hitz egiten dut" (Joan 8, 29)	6		Bere borondatea betetzen du, baldintzarik gabe esaneko da bere egitasmo guztietara
"Aitak nire gain utzitako egintzek testigatzen dute nire alde eta Aitak bidali nauela frogatzen" (Joan 5, 36)	7		Inork ez bezala, sakontasunez ezagutzen du Aita
"Aita eta biok bat gara... ni Aitarekin bat eginda nago eta Aita nirekin" (Joan 10, 30-38)	8		Ezaten duen guztia egia da, Aitak ezagutzera ematen baitio
"ire Aitak nire esku utzi du dena. Eta inork ez du ezagutzen Semea nor den, Aitak baizik; ezta Aita nor den ere, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak" (Lukas 10, 22)	9		Egiten duen guztia, Aita Jainkoaren izenean eta Berak aginduta egiten du
"Ni ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete... Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du" (Joan 8, 19; 14, 9)	10		Aitarengan bizi da eta Aita Berarengan. Aitaren isla leial eta zehatza da. Jainko da, Aita bezala.